

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2024ko bigarren seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea**

Etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen 2024ko bigarren seihilekoko errolda egin da, baita 2025eko otsailaren 3an onetsi ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda hori, interesa dutenek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espediente, baina aldeztatik administrazio batzarreko lehendakariari jakinarazi behar diote, aretoa irekitzeko eguna eta ordua finkatzeko.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatua xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertzeko errekurtsioa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsioak eta erreklamazioak administrazio batzarraren errejidore-lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, adierazi diren epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2025eko martxoaren 17an hasi eta maiatzaren 19an bukatuko da, egun biak barne.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Villaluenga, 2025eko otsailaren 12a

*Lehendakaria*

*ISABEL BENAVIDES LÓPEZ*